



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuak funtziona dezan, bazkide txartel bat egingo dugu. Beraz, bazkide nagusienak ezgaituak eta adineko pertsonak izango dira. Txartel hori gure enpresaren txartela izango da, eta esku erosketak puntuekin funtzionatuko du. Bazkideak, gure departamentuan erosketak egin ahala esku erosketak puntuak metatzen joango dira, eta puntu horiekin deskontuak lortu edota opariak eskuratu ahal izango dituzte.

Hornitzaile nagusia supermerkatua izango da, hau da, gure produktua Eroskin kokatuko dugunez, hornitzaile nagusia Eroski izango da. Beste alde batetik, altzariak eta behar dugun guztia ikeari erosiko dizkiogu. Azkenik, txartelaren puntuak kudeatzeko (“eskuerosketa” puntuak) enpresa bat kontratatuko dugu.

Funtsezko aliantza batzuk ere izango ditugu. Esaterako, Centro de atención a la discapacidad, La cruz roja, Fundación ONCE, CERMI (Comité Español de personas con discapacidad)... Elkarte hauek lagunduko digute horrelako pertsonak nola tratatu irakasten, zer esan edo nola hitz egin, edo supermerkatuan pertsona horietakoren bati zerbait gertatzen ote zaion, horren aurrean nola erreakzionatu jakiteko. Hori dela eta, gure buruaz seguruago egongo gara haiekin harremanetan jartzen garenean, eta egin behar denaren ideia profesionala izango dugu.